

PRODISCAT

DISLEXIA DETEKTATZEKO
ETA JARDUTEKO
PROTOKOLOA
HEZKUNTZA-
ESPARRUA

Argitaratzailea:

Departament d'Ensenyament de
la Generalitat de Catalunya.

Egilea:

Col·legi de Logopedes de Catalunya –
CLC

**DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZA
(DBH)**

Derrigorrezko bigarren hezkuntzan (DBH) dislexia antzemateko adierazleak behatzeko protokoloa

Ikaslearen izena Ikasturtea

Jaiotze-data Balorazio-data.....

ETAPA	ITEMAK	BA	EZ
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH)	Aspektu orokorrak		
	1. 1. Irakurtzeko eta idazteko zailtasunak dituzten familia-aurrekariak dauzka		
	2. Errendimendu kognitiboaren eta akademikoaren arteko aldea ikusten da		
	3. Ahozko eta idatzizko lanaren arteko alde nabarmena dago.		
	4. Irakurmenaren eta ahozko ulermenaren arteko aldea antzematen da.		
	5. Ahaleginaren eta emaitzen arteko aldea dago		
	6. Errendimendu akademiko aldakorra du.		
	Aspektu espezifikoak		
	7. Hitz egiten duenean lexikoa erabiltzeko zailtasunak ditu.		
	8. Azaldu nahi duena sintetizatzeke zailtasunak dauzka.		
	9. Esperientziak kontatzeko eta antolatzeke zailtasunak dauzka.		
	10. Ahozko kontsigna-sorta bat gogoan hartzea kosta egiten zaio.		
	11. Irakurketa mantsoa da gela-taldearekin alderatuta		
	12. Irakurtzean errepikapen-erroreak, zuzenketak, aldaketak... egiten ditu.		
	13. Gutxi erabiltzen diren hitzak irakurtzeko zailtasunak ditu.		
	14. Jendaurrean irakurtzea saihesten du.		
	15. Irakurtzean inonatztea kosta egiten zaio Ez ditu etenaldiak errespetatzen.		
	16. Emaitza eskasak lortzen ditu aukera anitzeko probetan.		
	17. Irakurketa ez da eraginkorra ahaleginerako.		
	18. Testu bateko ideia nagusia ateratzeko zailtasunak ditu.		
	19. Irakurmenean zailtasunak ditu.		
	20. Idazkera zaindu gabea eta askotan irakurtezina du.		
	21. Ahal duen guztietan idaztea saihesten saiatzen da.		
	22. Askoz aurreko etapetakoak diren akats ortografikoak izaten ditu.		
	23. Apunteak hartzeko zailtasunak ditu.		
	24. Testuak planifikatzea eta idaztea kosta egiten zaio.		
	25. Erantzun idatziak pobreak eta amaitu gabeak dira.		
	26. Atzerriko hizkuntzak bereganatzeko zailtasunak ditu.		
	27. Idazketan auto-zuzenketak egiteko gaitasun eskasa du.		
	28. Morfosintaxi-akatsak egiten ditu		
	29. Buruko kalkuluak zailtasunak ditu.		
	30. Ikur matematikoak automatizatzea kosta egiten zaio.		
	31. Ez da oso efizientea problema matematikoak ebazteko erabili beharreko prozeduran.		
	32. Formulak, datuak edo definizioak memorizatzea kosta egiten zaio.		
	33. Automatismoetan zailtasunak ditu: bidertzeko taulak, aditzen konjugazioa, etab.		
	34. Ikasteko autonomia eskasa agertzen du.		
	35. Zailtasunak dauzka agenda egunean ekartzeko.		
	36. Motibazio eskasa du ikaskuntzen inguruan.		
	37. Ageriko arrazoirik gabe gorputzaz kezu da (somatizazioak).		
	38. Ez da oso efizientea lana antolatzen eta planifikatzen.		
	39. Materialak, lanak, apunteak... galtzen ditu.		
	40. Liburuak, etxeko lanak... erraz ahazten ditu.		
	41. Lanak ezarritako denboran amaitzea kosta egiten zaio (denbora aprobetxatzen ez duela ematen du)		
	42. Arreta jartzea kosta egiten zaio		
43. Auto-estimua eskasa du esparru akademikoko kontuetan.			
44. Ezegonkortasun emozionala agertzen du			

Oharrak

EMAITZEN INTERPRETAZIOA

- **Beltzez** dauden itemetako baiezko erantzunak arrisku handiaren adierazle dira eta esku-hartzea eskatzen dute.
- Gainerako itemetako baiezko erantzunak (beltzez ez daudenak) sintomak areagotu ditzaketen loturiko zailtasunen adierazle dira eta esku-hartzeko estrategiak planifikatzerakoan kontuan hartu beharko dira.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO (DBH) IKASLEENTZAKO JARRAIBIDEAK

ORIENTABIDE OROKORRAK

- Etapa honetan ikasleak dagoeneko DISLEXIA diagnostikoa izan beharko luke.
- Hala ez bada eta irakasle/tutoreak hizkuntza idatziko gaitasunean arazo garrantzitsuak antzematen baditu (bai irakurtzean, bai idaztean) behaketa-protokoloa osatu beharko du eta, beharrezkoa bada, diagnostiko diferentziala eduki Dislexia-nahasmena baztertzeko edo berresteko.
- Hizkuntza idatzian zailtasunak berresten badira, bi norabidetan jardun beharko da:
 - Garrantzitsuena, ikasgai bakoitzaren ikaskuntza bermatzeko beharrezkoak diren egokitzapen metodologikoak egitea, nahiz eta ikasleak hizkuntza idatziaren baliabideak hori lortzeko bitarteko gisa eskura izan ez.
 - Bestalde, hizkuntza idatziaren ikasketa indartzen eta ikasleari baliabide hori funtzionala izan dadin estrategiak ematea.
- Bigarren eta hirugarren esku-hartze maila gomendatzen da, hortaz, kasurik larrienenetan.
 - 2. esku-hartze mailak eskatzen du ikasleak laguntza osagarria izatea -ikastetxean edo ikastetxetik kanpo- irakurketa eta idazketa ahal bezain funtzionalak lortzeko. Laguntza hori talde txikitan edo banaka eman daiteke.
 - 3. esku-hartze mailak curriculumeko edukietara sartzeko moduaren egokitzapen pertsonalizatua eskatzen du, baita, zenbait kasutan, eduki horiek ere egokitzea. Kasu honetan, banakako programa (BP) batez arituko ginateke; modu intentsiboan burutuko litzateke, beharrezkoa den denbora-tartean, ikasle dislexikoari konpentsazio-estrategiak eta baliabideak emateko eta curriculumeko helburuak lortzea bermatzeko.

ESKU-HARTZE ESPARRUA	JARDUNAK
PERTSONA LA	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleari bere zailtasunen berri dugula jakinaraztea, berarekiko interesa dugula eta ikaskuntza-prozesuan lagunduko diogula, ikaskideek adina aukera izan ditzan. • Ikasleak dituen zailtasunak aitortzeak ez du esan nahi bere ardurez salbuestea. • Hizkuntza idatzian zailtasunak izatea ulertzeak frustrazioa, estresa, presioa eta nekea eragin ditzake eta horrek ikaslea egokiak ez diren jarrerak hartzera eramane dezake. • Auto-estimua bultzatzea eta ondo egiten dena jendaurrean aitortzea. • Ikasleak bere zailtasunak porrot gisa bizi ez ditzan beharrezkoak diren jardun guztiak abiaraztea: bere erritmoa errespetatzea, egitekoak urratsetan sekuentziatuta ematea, aurrera pausuak aitortzea, taldearen aurrean ozen ez irakur araztea... • Neskak/mutikoak ondo egiten duena gelari nabarmentzea. Irudimen eta sormen handiko pertsonak izan ohi dira. Ahal dutenean nabarmentzeko aukera ematea. • Lotsagarri uzten duten egoerak saihestea: kalkuluak egiteko abiadura, arbelean idaztea, akatsak kolore biziz zuzentzea, etab.
FAMILIA ARTEKOA	<ul style="list-style-type: none"> • Familiaren inplikazioa bilatu behar da: zailtasunen berri eman eta ikastetxean bere seme-alabaren aurrerabidea errazteko jarraituko diren estrategiak eta jarraibideak ezagutarazi. • Seme-alabek irakurketarekiko duten motibazioari eusten jarraitzeko eta jarduera atsegina izaten jarrai dadin orientabideak ematea. <p>Irakurketarekiko zaletasuna ikasten den biziaren aurreko jarrera da. Errazagoa da seme-alabak irakurketan zaletzea gurasoek ikaskuntza-prozesuan modu aktiboan parte hartzen badute.</p>
SOZIAL A	<ul style="list-style-type: none"> • Ikaskideei ikasleak dauzkan irakurtzeko eta idazteko zailtasunen berri ematea komeni da. • Ikasgelan eta ikasle guztiekin aniztasunarekiko errespetua landu behar da.
ESKOLA	<ul style="list-style-type: none"> • Irakaskuntza-talde osoa aho batez eta modu koordinatuan aritu behar da curriculumeko ikasgaietan beharrezkoak diren egokitzapen metodologikoak egiteko. Tutorea da arduraduna. • Irakaskuntza-talde osoari ikaslearen nahasmenaren berri eman eta bestelako zailtasunak lotuta izan ditzakeela, emozionalak, jokabidezkoak, ikaskuntzakoak... • Irakaskuntza-taldeari jakinarazi dislexiak ez diela curriculumeko ikasgaiei bakarrik eragiten, antolaketa eta planifikazioaren moduko bestelako alderdiei ere

ESTRATEGIA METODOLOGIKO	ZER EGIN?
Irakasleak ikaslearen aurrean duen jarreraz	<ul style="list-style-type: none"> • Honelako adierazpideak ez erabiltzen saiatu: "gehiago saiatu", "hobeto fijatu"... Dislexia daukaten ikasle gehienak ahalegindu egiten dira baina ez dute nahi bezalako emaitzarik lortzen eta horregatik interesa eta arreta galtzen dituzte. Ez da harrizkeoa egun batean dena oso ondo egitea eta hurrengoan oso gaizki; dislexia duten ikasleen errendimendua oso aldakorra da. • Bere defizitari loturikoan malgua izan: lehenago bazekizkien gauzak ahaztea, gaizki irakurtzea, ortografia-akats asko egitea. • Lotsagarri utz dezaketen egoerak saihestea: kalkuluak egiteko abiadurako talde-ariketak, arbelean idaztea, ikaskide batek testu bat zuzentzea, akatsak kolore biziz zuzentzea, etab.
Jarraibideak emateko moduz	<ul style="list-style-type: none"> • Ez eman ahozko agindu asko aldi berean. • Jarraibide idatziak argiak eta zehatzak izan behar dira. Idatzizko jarraibide luzeegiak erabiltzea saihestu eta urrats askotan zatitu.
Euskarriez	<ul style="list-style-type: none"> • Curriculumeko edukiak euskarri ezberdinetan aurkeztu: bisualak eta entzunezkoak (eskemak, mapa kontzeptualak, Power Point, dokumentalak, pelikulak, arbel digitala horma-irudi interaktiboekin...). • Ikasleari IKTen erabilera erraztu (irakurgailu informatikoak, ...). • Ikasleari bere irakurketa-mailaren arabera liburuak eman. • DBHko etapa osoan kalkulagailuaren erabilera sustatu. • Hiztegi pertsonalizatuak eta digitalizatuak egitea gomendatu. • Liburu digitalizatuak erabili.
Aintzat hartu beharreko beste hainbat alderdi	<p>Indartzea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tutoretza-ekintza jarraitua dago ikaskuntza berriekiko interesa eta motibazioari eusteko. <p>Trebetasunak irakatsi</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikaskuntza trebetasun erabilgarri eta transferigarriak garatzen zentratu behar da, beharrezkoa ez den eta ikasleak ezin gogoan har dezakeen informazio asko eman ordez. • Ikaskuntza adierazkorra eta bizipenezkoa sustatu. <p>Metakognizioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Helburua ikaslea bere zailtasunez jabetzea da, konpentsazio- eta autoerregulazio-estrategiak aplikatu ahal izan ditzan.
Hizkuntza idatziaren ikaskuntzaz:	<p>Arintasuna eta zehaztasuna</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arreta hitzak dekodifikatzen jartzeak ez duela ulermena ezbaian jartzen egiaztatu behar dugu. • Ikaskideen aurrean ozen modu inprobisatuan irakur ez dezan saiatu. • Ikasleak bere borondatearen kontra jendaurrean irakurtzea saihestu. • Euskarri informatikoak eman, irakurgailu informatikoak esate baterako. <p>Hiztegia irakatsi eta domeinua bermatu</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testu bat irakurtzen lagundu, agertzen den hitz berrien esanahia erraztuz. • Testuak bere irakurketa-errendimendura egokitzen saiatu, laburragoak eta ikaslearen arabera hitzekin. • Testuak ikasleak aurrez dituen ezagueren arabera aukeratu. • Zailtasunik agertuz gero, hautabidezko ariketak eman. <p>Ulertzen irakatsi</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakurketaren aurreko ezaguerak aktibatu. • Predikzio- eta galdera-inferentziak egiten lagundu. • Irakurketari buruzko irakurri aurreko elkarrizketa erabili. • Ulermena irakurketa-prozesu osoan zehar kontrolatu, ez irakurketaren amaieran bakarrik. <p>- Adierazpen idatzia irakatsi</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tipologia ezberdineko testuak egituratzen irakatsi (deskribapena, narrazioa, esposizioa...), aurrez ezarritako eskemen bitartez eta esaldi laburrak baina behar bezala eraikiak eta bere elementu guztiak erabiliz. • Txantiloia eman, konektore, adberbio, adjektibo eta abarrekin, testu idatziak egituratzen laguntzeko. • Bere idazkerako akats ortografiko guztiak sistematikoki ez zuzendu. • Ikasleak arbeletik kopiatu behar izatea saihestu eta ahal dela materiala idatziz eman. • Liburuko enuntziatuak orrian berriro idatzi beharra saihestu.

	<ul style="list-style-type: none"> • Jarduerak amaitzeko denbora gehiago eman. • Egindako lanak ordenagailuaren eta testu-zuzentzailearen laguntzaz aurkeztea ahalbidetu.
ESTRATEGIA METODOLOGIKO	ZER EGIN?
Denboraren antolakuntzaz, planifikazioaz eta kudeaketaz	<ul style="list-style-type: none"> • Denboraren kudeaketan lagundu. • Gelan egutegi bat eduki, ebaluazio, entrega eta proiektu edo lanen datekin, horien artean denbora-tarte zabala uzten saiatuz. • Arreta edota antolaketa pertsonaleko zailtasunen aurrean, auto-jarraibideak dituen antolaketa pertsonaleko sistema erabili. • Lana tarte labur baina bizitan zatitu, nekea saihesteko eta kontzentrazioari mesede egiteko. • Agendaren jarraipena egin. Bere ikasmilako agenda elektronikoa kontsultatzeko aukera eman. • Ahal dela, egindako lanen ordenan eta sailkapenean lagundu. • Ikasgai guztietako gehiegizko etxeko lanak murriztu, jarduera errepikakorrak edota osagarriak saihestuz, ez ordea ezinbestekoak. • Jarduerak amaitzeko denbora osagarria eman.

DOIKETAK ETA EGOKITZAPNEAK	ZER ERRAZTU BEHAR DEN
Eskola-inguruaz	<ul style="list-style-type: none"> • Gela barruan duen kokapena aintzat hartu behar da eta ikaslea maisuarengandik gertu egon dadin saiatu. • Gelan egutegi bat eduki, ebaluazio, entrega eta proiektu edo lanen datekin, horien artean tarte zabala uzten saiatuz. • Gelan ahozko egutegia esekita eduki, baita bisuala ere, denboraren antolaketa eta planifikazioa errazteko.
Ebaluazio-lanez	<ul style="list-style-type: none"> • Irakaskuntza-taldea modu koordinatuan aritu behar da azterketak egiteko, proiektuak edo lanak entregatzeko datak aurreikusteko, gainjarri ez daitezen eta denboran sakabanatuta gera daitezen. • Azterketen datak aurrerapenez jakinarazi. • Ikasleak egunero azterketa bat baino gehiago izan dezala saihestu, baita astean bi baino gehiago ere. • Azterketa hasitakoan, galderak ahoz irakurtzea nahi ote duen galdetu. • Azterketa batean oso galdera luzeak eta galdera irekiak, ideiak antolatzea eskatzen dutenak, saihesten saiatu eta idatziz ordenatuta adierazi; hobe da galdera zehatzak egitea. • Azterketak eta lanak edukiaren arabera ebaluatu, ez formaren arabera. • Azterketak ahoz edo formatu bisualagoaz egiteko aukera aztertu. • Azterketako galderak marrazki edo grafikoen bitartez erantzuteko aukera eman. • Azterketetako ortografia-akatsak amaierako nota jaistearen edo ez gaintzeko arrazoia izatea saihestu. • Zuzenketetan, gorria ez diren beste kolore batzuk erabili (ikasleek kolore hori porrotarekin lotu dezakete). • Badakitena erakusteko behar adina denbora eman eta ez presaka eta modu zaindu gabean aritzera behartu egitekoak emandako denboran amaitzeko. • Azterketako galderak idatzita eman, sekula ez diktatuta. • Ebaluatzen dituzten hautabideak planeatu eta aintzat hartu (lanak, proiektuak, power point-ak). • Ikasleak gaintutako ebaluazioak dauzkan ikasgaietako proba orokorrak egitea saihestu. • Irakasleari azterketetan dauzkaten zalantzak galdetzeko modua erraztu. • Erantzun anitzeko azterketak saihestu.

Curriculumeko material ezberdinez	Egokitzapenak
<p>1. Gaztelania eta euskal hizkuntza:</p> <p>a</p> <p>Irakurket</p> <p>Idazketa</p> <p>Testu baten ulermena</p> <p>- Derrigorrez irakurri beharreko liburuak:</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Irakurmena askotan dekodifikazio-zailtasunek baldintzatzen dutela jakitun izan. • Hiztegi teknikoak zabaltzea irakurketa-zailtasunen mende dago; hortaz, gomendatzen da hiztegi pertsonalizatuak egitea hiztegia aberasteko. • Enuntziatuak ulertu dituela egiaztatu. • Ozen irakurtzen ez behartu. • Gelan ozen irakurri behar badu, irakurri beharreko testua aurretik eman. • Irakurtzeko behar duen denbora eman. <ul style="list-style-type: none"> • Kontuan izan ortografia-akatsen kopia sistematikoak ez duela ortografia-araua bereganatzen laguntzen. • Bi hizkuntzen arteko interferentziak edukitzea ulertu (euskara-gaztelania) • Gelan lantzen ari diren ortografia-akatsak baizik ez zuzendu, edo ikaslearekin aurrez hitzartutakoak. <ul style="list-style-type: none"> • Testuaren edukia egokitu, hiztegia edo egitura sintaktikoa sinplifikatuz. • Testuko hitzak edo jarraibideak ematen dituztenak azpimarratu. • Testua zatitu eta, zati bakoitzaren ondoren, zati horri men egiten dioten ulermen-galderak erantsi. • Informaziorik garrantzitsuena aurki dezakeen paragrafoak nabarmendu. • Aukera anitzeko edo erantzun irekiko galderak saihestu. • Testuaren audio-grabazioa edukitzeko modua eman, irakurmen-azterketetan, edo irakurgailu digitalak erabili. • Testuak irakurtzeko denbora gehiago eman. <ul style="list-style-type: none"> • Derrigor irakurri beharreko liburuak gutxiagotu edota behar bezala aukeratu, formatua eta hauraren interesa aintzatu hartuz. • Liburuak bere irakurketa-mailara egokituta egon daitezen saiatu. • Irakurmen-azterketa batean irakurketa-liburua eskura izateko modua eman, edo berak aurrez egindakoa. • Irakurketa errazteko, argudioa, gaia, laburpena... aurrera daitezke.
<p>2. Matematikak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Problema ebazteko prozedura balioetsi eta ez eragiketen emaitzak. • Ikasleari kalkulagailua erabiltzeko modua eman, bai gelan, baita azterketetan ere. • Problemetako hitz gakoak nabarmendu. • Formulak eskura edukitzen utzi, bai gelan, baita azterketetan ere. • Zalantzak kontsultatzeko testu-liburua edo apunteak eskura izan behar ditu.
<p>3. Natur- zientziak/gizarte- zientziak/Teknologia</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Arbelean landuko den gaiaren edukia jasotzen duen gidoia idatzi. • Ikasgaiko hiztegi espezifikoak aurreratzea komeni da. • Galdera zehatzak eta erantzun laburrekoak egin. • Hiztegi akademikoa murriztu. • Adierazpen idatziko eta ortografia-akatsak aintzat ez hartu azterketa zuzentzerakoan. • Ikasleari dakienaz eta ikasiko duenaz hausnartu arazi. • Ikaskuntza-estrategiei buruzko lana egin behar da, ikasleak ahal besteko autonomia gara dezan. • Enuntziatu edo testu bateko hitzak eta kontzeptu gakoak identifikatzea eta azpimarratzea sustatu eta erraztu. • Hala eskatzen duten gaietan, mapa kontzeptualak egin. • Azterketetan landutako gaiari buruzko hiztegi teknikoak eta espezifikoak eskura eduki.

4. Atzerriko hizkuntza

- Hiztegia eta gramatika ikasteko gutxieneko helburuak adierazi.
- Ahozko ekoizpena lehenetsi.
- Gramatika-egituratzeko arauak eta aditz-denboren eskemak edukitzen utzi.
- Idatziz, egitura morfologikoak bereganatzea kosta egiten zaio. Oinarrizkoenak eta sinpleenak erabili behar ditu.
- Hitz irregularretan akatsak ez zuzendu.
- Oinarrizko hiztegia bereganatu eta erabiltzea erraztu.
- Derrigor irakurri beharreko liburu-kopurua murriztu eta bere irakurketa-mailara egokitu.
- Ikasteko bestelako moduak proposatu: abestiak, pelikulak...
- Irakurgailu informatikoak erabiltzen utzi.